


Mikel M. Karreraren *Ondazilegi izeneko lursailak* liburuaren aipamena

(Review of the book *Ondazilegi izeneko lursailak*, by Mikel M. Karrera)

VITERI ZUBIA, Ibon

Zuzenbide Zibileko irakasle laguna
Zuzenbide Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel de Lardizabal, 2
20018 Donostia
dcpvizui@sd.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2003), 10; 97-99]



a

Argitalpen hau Gipuzkoan sustraitutako tradizio juridikoari buruzko ikerketa lana da. Autoreak ondazilegi lursailen esanahia egungo hitz eta kontzeptuekin argitzeko eta azaltzeko asmoa du. Gipuzkoako landa esparruko erakunde berezi hau Gipuzkoako Foru Zuzenbide Zibila artikulatzeko garaian agertzen da, Lege 3/1999, azaroaren 16koan, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilar buruzko Legearen barruan Gipuzkoako Foru Zibilar dagokiona aldatu zenean. Halaber, azpimarratzekoa da lan honetan irakurleak ez dituela ondazilegien jatorriari buruzko azalpenak bakarrik aurkituko, erakunde honen bideragarritasun edo funtzio ekonomiko eta sozialari buruzko iradokizun balioetsuak ere topatuko baititu.

Giltza hitzak: Eskubide errealak. Ondasun erkidegoa. Baso-ustiapena.

z

La presente publicación es una obra de investigación sobre la tradición jurídica arraigada en Guipúzcoa. Su autor pretende exponer con palabras y conceptos actuales el significado de los terrenos ondazilegi. Esta institución peculiar del agro guipuzcoano se encuentra presente en el articulado del Derecho Civil Foral de Guipúzcoa, concretada a través de la Ley 3/1999, de 16 de noviembre, de modificación de la Ley del Derecho Civil del País Vasco, en lo relativo al Fuero Civil de Guipúzcoa. Este estudio, además de responder a interrogantes históricos y afinar herramientas imprescindibles para el profesional, realiza sugerencias a tener en cuenta sobre la viabilidad o función económica y social de la institución.

Palabra clave: Derechos reales. Comunidad de bienes. Explotación forestal.

c

Cette publication est un travail de recherche sur la tradition juridique établie en Guipúzcoa. Son auteur prétend exposer avec des paroles et des concepts actuels la signification des terrains ondazilegi. Cette institution particulière de la terre cultivée de Guipúzcoa se trouve dans le texte du Droit Civil Foral de Guipúzcoa, concrétisée à travers la Loi 3/1999, du 16 novembre, en modification de la Loi de Droit Civil du Pays Basque, concernant le Fuero Civil de Guipúzcoa. Cette étude, en plus de répondre à des interrogations historiques et d'affiner les outils indispensables au professionnel, réalise des suggestions que l'on doit prendre en considération sur la viabilité ou la fonction économique et sociale de l'institution.

Mots clés: Droits réels. Communauté de biens. Exploitation forestière.



Mendia lurra eta hegaldurak osatzen dute. Finka beraren gain bi elementuen aprobetxamendu berezia aurrera eramateko aukerak, besteak beste, hainbat molde juridiko sortu ditu. Molde horietan, titularitatea desglosatu egiten da eta subjektu bati baso aprobetxamendua edo zuhaitzena (helgadura edo hegaldurarekiko eskubidea) dagokion bitartean, besteari nekazaritza aprobetxamendua edota abereena ere (lur eskubidea edo lurrarekikoa) dagokio.

Gipuzkoako eremuan, lurraren eta hegalduraren bereizketa *ondazilegi* lursailen figuraren bitartez antzematen da. Gipuzkoako landa esparruko erakunde berezi hau da, hain zuzen, azterlan honen objektua, zeinen egokitasuna ondazilegiek orain arte jasan izan duten zehazgabetasun juridiko nabarmenak indartzen baituen. KARRERA EGIALDE Doktorearen ikerlanak, aipatutako hutsunea betetzen du. Autorearen hitzetan, azterketa honen oinarria erakundearen jatorri eta bilakaerari buruzko datuak eskura jartzea da eta, aldi berean, beren izaera juridikoa agerian jartzea. Horrela, figura hori ordenamenduak aurreikusitako artean, erregimen juridiko egokian kokatu nahi da. Gainerantzean, berreraikitze lan honi ekiten dio erakundea aurrez Zuzenbide pribatuaren edo Zuzenbide publikoaren ohiko esparru hertsian barneratu gabe, eta ikerketarako 'ikuspuntu' bien begirada aintzat hartuta.

Bestetik, lan honek Mikel Mari KARRERA EGIALDEK Euskal Herriko nekazaritza alorrekin zerikusia duten arazo juridikoei buruz garatutako ikerketa ildo serio eta koherentea sendotzen du. Autorea Zuzenbidean Doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide sailan (Donostiako Zuzenbide Fakultatean) bitarteko Irakasle Titularra da. Bere lanetik azpimarratzen da *nekazaritza errentamendu historikoei* buruzko ekarri apartekoa, *Gipuzkoako errealtate-tik abiatuta* (Madril, Marcial Pons, 1998), zeinen bitartez doktore gradua lortu baitzuen.

Bi dira liburu honen atalak: lehenengoak eduki historikoa du eta *ondazilegi* lursailen edo mendien figura juridikoaren profila erakitzen zuzenduta dago. Bigarrenak, berriz, erakundearen izaera juridikoa zehaztea du helburutzat.

Ondazilegi lursailen azterketa juridikoari ekin baino lehen, autoreak interesgarritzat jotzen du hitzak berak ohiko hizkeran eta gizarte hizkeran duen esanahiaz hainbat ohar biltzea. Horrela, bigarren kapituluaren hainbat erreferentzia kontzeptualen berri ematen du. Bi dira, nagusiki, *ondazilegi* hitzaren etimologiari buruzko hipotesiak. Lehenengoak hitz honen bitartez 'auzo lurrari' aipamen egiten zaiola defendatzen du. Bestalde, bigarren hipotesia eraikitzen da, hitzak luberritze libreko lurra edota zuhaitzaren ipurdia bera adierazi nahi dituela ulerturik. Hala ere, argi dirudi, zilegi (edo zilegi-baso) hitzaren esanahia, auzo mendia edo auzo lurra esanahiarekin pareka daitekeela.

KARRERA irakasleak, ondazilegi lursailen izaeraz jabetzeko, liburu honen oin oharretan argi asko ikusten den bezala, iturrietara jo behar izan du: protokoloen artxiboetara, udal artxiboetara eta Gipuzkoako Artxibo Orokorreara, eta Hipoteka Ofizioen eta Jabetza Erregistroen inskripzioetara. Lan eskerga horren emaitza dira, batez ere, hirugarren eta laugarren kapituluak. Hauetan auzo mendiak erabili eta ustiatzeko hainbat mekanismo azaltzen dira. Auzo lurretan eragiten duten erregimen desberdinen artetik, eta, bereziki, baso aprobetxamendua eta ekoizpena sustatzeko, autoreak, erabilera zabalagoa duen gisa, *ondazilegi* izeneko lursailen erregimena nabarmentzen du. Era honetan izendatzen dira auzo eta kontzejuko lur zatiak, hiribilduko auzokoek arbolak bereziki landatzeko udalerriri eskatutakoan, udalerriri partikularri landaketa egiteko eta arbolaren beraren aprobetxamenduari ekiteko ematen dizkionak, baina kontzejuk lurraren jabetza gordez. Titularra, seinaleztatutako ingurunean landaketa egindakoan, landatutakoaren jabe bihurtzen da, eta, zuhaitzen jabe den aldetik, haien gainean erabakitze ahalmen osoa du. Lurreko gainerako produktuak, oro har, eta herriek partikularrei emandako ahalmenen arabera, betiko denek aprobetxatu ahal izango dituzte. Erregimen mota horri lotutako lursailen zerrenda, udalerriek horretarako erabiltzen duten liburuan jasotzen da. Froga honen ezean, landatutako zuhaitzen gozamina etengabeko edukitza kredituaz soilik errespetatuko zaie auzokoei.

Era berean, egileak desamortizazioak auzo ondasunen gain eta ondazilegi lurren gain ze eragin izan zuen azaltzen digu. Horrela, ulerbide erraz bat eskaintzen digu, jakin dezagun jatorriz auzo edo herri izaera zuten mendien jabetza eta ustiapena nola bihurtu zen izaera partikularreara, udalen diru iturri izatera alegia, baita izaera pribatura ere, desamortizazioen garaietan edota gerrak sortutako zorrei aurre egiteko, udal askok auzo mendiak saldu egin baitzituzten.

Bosgarren kapituluaren KARRERA irakasleak instituzioa karakterizatzen du, aurreko bi kapituluetan jasotako erreferentziak oinarritzat hartzen dituelarik. Laburbilduz, suposizioan hainbat aprobetxamendu batera gertatzen dira, beren artean zerikusirik ez dutenak, eta gauza berari dagozkio, jazaritzeko titularitatea ezberdinarekin.

Instituzio goiztiarra dela onartu arren, autoreak seigarren kapituluaren bere erabilgarritasun praktikoa aldarrikatzen du. Proposamen hau mahaigaineratzen du kontuan hartuz aztertutako mekanismoak eskaintako irtenbidearen azpian dagoen ideia beste hainbatetan ere ageri dela: ondasun erkidegoan, enfiteusi zentsuan, zortasun pertsonalean, usufruktuan, landa edo landare azaleraren eskubidean, balizko erkidegoan eta errentamenduan edo partzuergoan. Hori dela eta, bide konparatiboa erabiltzen du bere azterketaren xedea den instituzioarekin (jabetzaren forma bere-

zia) zerikusirik ez duten araututako figura guztiak baztertzeko.

Jabetza 'hegalduratik eta lurretik bereizia' instituzioa eraikitzeo aukera, esplizitu edo implizitu, landaketaren jabetza bereizita kontuan hartu duten ordenamenduko hainbat arauetatik ondoriozta daiteke. Legeria horren azterketa da, hain zuzen, zazpigarren kapituluaren ardatz nagusia. Nahiz eta suposizio zehatzei erantzun, legeria honi esker argi eta garbi gelditzen da jabaria batzuetan banatu egiten dela eta beste batzuetan, berriz, zamatatu. Legezko isiltasunaren aurrean, jurisprudentziak instituzioaren izaera juridikoaren arazoaren aurrean jarrera bat hartu behar izan du, finka baten aprobetxamenduen titularitate anitzarekin zerikusia duten bi arazoei erantzuna emateko premia sortu baitzaio: eskubide bakoitzaren zehaztapenarena, eta atzera eskuratzeko eskubidearen aplikazioaren bitartez titularitate desberdinen balizko bateratzearena. Auzitegi Gorenaren epai anitz aztertuta, KARRERA irakasleak azaltzen du posible dela esatea auzitegi honen iritzia, batez ere, hurrengo interpretazioaren alde agertzen dela: juridikoki ez dago jabekidetzarik, baina ez da ezegokia zentzu ekonomikoan erkidego antzeko bati buruz hitz egitea.

Era honetan, seigarren eta zazpigarren kapituluek liburuaren bigarren zatiaren mamira eramaten gaituzte, zortzigarren kapitulura alegia. Autoreak instituzioaren izaera juridikoa zehazten du, aprobetxamenduen beraien eta oinarritat

dituzten ondasunena bereizten dituelarik. Bereizketa honen arrazoi nagusia ikerlanaren instituzioa erkidego edo jabekidetzat ideiatik urruntzen duen egitatea nabarmentzeko nahia da, hau da, objektu independente eta autonomoen aniztasuna egotea. Honek autoreari ahalbidetzen dio, eskuragarritasunari buruzko Kode Zibileko 358. artikulua eta ondorengoek duten xedapen edo aginduzko izaerari buruz erabaki eta gero, bereizitako jabetza jabarizko modalitate bereziko egoera gisa eratztea, bere objektua finkek izan ditzakeen aprobetxamenduetako bat edo batzuk direlarik.

Aurreko kapituluaren hartutako jarrerak salbuespenezko figura honekin zerikusia duten arazo zehatzen azterketa baldintzatzen du, besteak beste: eskubidearen edukia (bederatzigarren kapitulua); Jabetza Erregistroan inskribatzeko aukera, ondasun higiezin baten gaineko eskubide erreala den heinean (hamargarren kapitulua), eta bereizitako jabetzan parte hartzen duten eskubideen elkarrekiko mugatzea (hamaikagarren kapitulua).

Azkenik, liburuak geroaldirantz begiratzen duen kapitulu bat jasotzen du. Azken iruzkinetan, KARRERA irakasleak ikertu eta kokatzen den erakundearen bideragarritasun edo funtzio ekonomikoari eta sozialari buruzko iradokizun baliotsuak egiten ditu. Lan osoa iradokitzen duen ikuspuntu honek eta ikerlanak berak egungo egile juridikoari behar-beharrezko dituen tresnak leuntze eta egokitzeak, dudarik gabe, bere irakurketa aholkatzen du.